

# HITZALDI INFORMATIBOAK

## Euskadiko Kooperatiben Lege berria eta ULMA Taldeko Kooperatibetako Estatutu Sozialetan hainbat aldaketa.

Euskadiko Kooperatiben Lege berria dela eta, ULMA Taldeko Kooperatibetako Estatutu Sozialetan hainbat aldaketa egin beharra aurreikusten da. Aldaketa horiek, 2021eko Batzar Nagusietan proposatuko dira. Aldaketa guzti hauen inguruan azalpenak emateko ULMA Talde mailan hitzaldi informatiboak antolatu dira baina COVID-19ak eragindako osasun egoera dela eta, era telematikoan egingo dira.

Bi hitzaldi burutuko dira, **apirilaren 20an**, biak gazteleraz:

- Goizez, **11:00etan**.
- Arratsaldez, **15:00etan**.

Saioak ULMA Taldeko bazkide guztiei zuzenduta daude. Ordu bete inguruko iraupena izango dute eta hizlaria **Aitor Fernández** izango da, ULMA Taldeko Arlo Juridikoaren Arduraduna. Hitzaldiak grabatu egingo dira eta ondoren ere ikusteko aukera izango da denbora batean zehar.



### Nola parte hartu?

Hitzaldietan parte hartzeko edo ondoren ikusteko, erregistratu egin behar da Webinar Jam plataforman:

- . Ondorengo esteka honen bidez: <https://event.webinarjam.com/register/204/2o118hn7>
- . Edo zure smartphonearekin QR kode hau eskaneatuz.



Behin erregistratuta, sarbiderako esteka bidaliko zaizu.

**OHARRA:** Ordenagailu batetik jarraitu behar baduzu hitzaldia, Internet Explorer ez den edozein esploratzaile erabili behar da (Firefox, Google Chrome...).